


BALOREZKO PROPOSAMENA

2017ko urtarrilaren 1ean Rivas Vaciamadriden beste gizon baten sastakaiz hil zuen bere 40 urteko bikote ohia.

2017ko otsailaren 21ean gizon batek bere emaztea hil zuen arma zuri batez Santa Perpètua de Mogodanen.

2017ko urriaren 31n Aronan, Tenerifen beste batek bere 24 urteko bikotea ito zuen.

Gizon guzti hauek urruntze agindu bat zuten gutxienez, eta ondorengo estadistikek erakusten duten bezala, ez dira horrelako kasu bakarrak.



Arazo larri honekin amaitzeko asmoz eta kasu gehiago ekiditeko, asmakuntza bat sortu dugu. Gutxienez, salaketa egin eta urruntze agindua lortu duten emakumeei laguntza eskaini ahal izateko.

Asmakuntza horrek bi pultsera berezik osatutako sistema batean datza. Bi pultserak zeharo desberdinak dira.

Lehenengo pultsera, erasotzaileak eramango du eta bateria bat darama. Bateriaren %80a gastatzerakoan, automatikoki poliziari seinale bat iristen zaio aldatu behar dela jakinarazteko. Horrela, poliziak azkar erreakziona dezake eta bateriaren aldaketa segituan egingo da. Gainera, etxe barruko arrastatzea duten presoek pultserak daramaten sistema berdina du pultsera honek, beraz, erasotzaileak pultsera kentzea guztiz ezinezkoa da.



Beste pultsera, biktimak daramana, pilei esker dabil. Pultsera hau erloju bat da eta gainera, uhalean piperbeltzeko likidoa gordetzen du. Erlojuaren goialdean botoi bat eta zulo bat ditu. Botoia sakatzerakoan, likidoa espray eran ateratzen da.



Erasotzaileak bere urrutze agindua ez duenean errespetatzen, hau da, gehiegi hurbiltzen denean, bi pultserak aktibatu egiten dira eta komisaldegi hurbilenari seinaleak bidaltzen dizkiete. Gainera, txistu jasanezin bat sortzen dute erasotzailea, biktima eta inguruko edozein jakinaren gainean jartzeko. Hau guztia pultserek irrati- frekuentzia, GPS eta sare mobilaren bidezko geolokalizazio sistema izateari esker gertatzen da.

Hau guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da produktu hau merkaturatzea hilketak ekidituko dituelako eta gizarteari onura nabariak ekarriko dizkiolako.